

Euskal AEko industria-jarduera % 64,4 suspertu da 2021eko apirilean

2021eko Industria Produkzioaren Indizearen lehenengo lau hilabeteetako metatua % 10,4koa da


Eustaten datuen arabera, eta lan-egutegiko termino homogeneoetan, 2021eko apirilean Euskal AEko industria-produkzioa % 64,4 handiagoa izan da 2020ko hil berean baino. 2021eko lehenengo lau hilabeteetako balantzeak industria-jarduera % 10,4 igo dela erakusten du.

Urtaroen eragina zuzenduta, 2021eko apirila eta 2021eko martxoa alderatuta, Euskal AEko industria-produkzioa % 3,1 hazi da.

Aldaketen larritasuna urte arteko terminoetan ulertze aldera, kontuan hartu behar da ezen 2020ko martxoaren 14an alarma-egoera agindu zela COVID19aren pandemiari aurre egiteko, zeinak industria-jardueraren zati handi baten garapena mugatu baitzuen 2020ko apirilean.

Euskal AEko industri produkzioaren indizearen urte-arte aldakuntza-tasa (%)

Jaiegunen eraginetatik zuzendua



Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Izan ere, 2021eko apirileko indizearen bilakaerak, 2020ko apirilarekin alderatuta, zeinu positibo orokorrak izan ditu industria-sektore handi guztietan: *Ekipo-ondasunak*, non motordun ibilgailuen fabrikazioa, tren-makinen eta trenbideko materialaren egitea edo aireontziak edo itsasontziak egitea barruan dauden, % 91,6 igo dira; eta *Bitarteko ondasunak* % 76,4 igo dira (horien artean daude metalurgia eta metalezko produktuen fabrikazioa, industria kimikoa eta kautxuzko eta plastikozko produktuen fabrikazioa).

Kontsumo-ondasunek urte arteko % 47,0ko igoera izan dute oro har, zeren *Kontsumo-ondasun iraunkorrek* % 137,6ko igoera izan baitute, eta *Kontsumo-ondasun ez iraunkorrek* % 33,2koa. *Kontsumo-ondasun iraunkorrek* epigrafean altzariak eta etxeako tresnak fabrikatzeko jarduerak ageri dira. Elikagaien fabrikazioa, prozesatzea eta kontserbazioa, garbiketarako eta higienarako produktuen fabrikazioa eta jantziak egitea dira, besteak beste, *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* sektore handiaren barruko jarduerak.

Energia, energia elektrikoaren hornidura eta petrolioaren fintzea barne, % 7,9 igo da 2021eko apirilean, urte arteko terminoetan.

2021eko apirileko hil arteko aldakuntza, 2021eko martxoaren aldean, positiboa izan da industriako sektore handi guztietan. *Energia* % 14,8 handiagoa da 2021eko apirilean 2021eko martxoan baino, eta *Ekipo-ondasunak* % 4,2 handiagoak. *Kontsumo-ondasunak*, oro har, % 3,3 hazi dira produkzioan, *Kontsumo-ondasun iraunkorren* % 4,6ko gehikuntzaren eta *Kontsumo-ondasun ez iraunkorren* % 2,9ko gehikuntzaren ondorioz. *Bitarteko ondasunak*, bestalde, % 1,9 gehitu dira.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Hazkunde-tasak. Behin-behineko datuak. 2021eko apirila

	Egutegiaren eragina zuzendutako datuak		Datu desestazonalizatuak	
	Api2021 / Api2020	A(Api2021) / A(Api2020)(*)	Api2021 / Mar2021	Mar2021 / Ots2021
Indize orokorra				
Euskal AE	64,4	10,4	3,1	1,0
Araba/Álava	104,9	13,4	6,5	0,3
Bizkaia	50,4	5,9	2,3	0,8
Gipuzkoa	60,1	13,3	1,9	1,6
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK				
Kontsumo-ondasunak	47,0	9,7	3,3	6,4
Kontsumo-ondasun iraunkorrek	137,6	32,9	4,6	15,3
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrek	33,2	4,9	2,9	4,3
Ekipo-ondasunak	91,6	13,3	4,2	2,8
Bitarteko ondasunak	76,4	13,6	1,9	1,0
Energia	7,9	-8,6	14,8	-5,5

(*) 2021ko urtariletik oraingo hilera arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, 2020eko aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Xehekiago, Euskal AEko industrian pisu handiena duten sektoreen artean, 2021eko apirilean urte arteko susperraldi handiena izan dutenak *Garraio-materiala* (% 198,5), *Kautxua eta plastikoa* (% 125,0) eta *Metalurgia eta metalezko produktuak* (% 74,7) izan dira.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Sektore nagusiak. Urte arteko hazkunde-tasak. A-38 sektorizazioa. Behin-behineko datuak

	m / m-12
A38 SEKTORIZAZIOA	
SEKTORE NAGUSIAK⁽¹⁾	
10 - Metalurgia eta produktu metalikoak	74,7
16 - Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	12,3
09 - Kautxua eta plastikoak	125,0
13 - Makineria eta tresneria	63,0
14 - Garraio-materiala	198,5
03 - Elikaduraren, edarien eta tabakoen industriak	34,6
12 - Material eta tresneria elektrikoa	39,1
05 - Zurgintza, papera eta arte grafikoak	15,1

Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

(1) Euskal Aeko industrian pisurik handiena duten sektoreak

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Apirilean Industria Produkzioaren Indizearen urte arteko bilakaera positiboa izan da hiru lurraldeetan, nahiz eta tamaina ezberdinekoa izan. Horrela, Arabako susperraldia % 104,9koa izan da urte arteko konparazioan. Gipuzkoan industria-produkzioa % 60,1 handiagoa izan da 2021eko apirilean 2020ko apirilean baino, eta, azkenik, Bizkaian urte arteko aldakuntza % 50,4koa izan da.

Hil arteko terminoetan, 2021eko apirilean 2021eko martxoaren aldean, Araban produkzioa % 6,5 hazi dela kalkulatu da; Bizkaian eta Gipuzkoan, berriz, % 2,3 eta % 1,9 igo da, hurrenez hurren.

INFORMAZIO OHARRA

Egutegiaren eraginak zuzentzeko eta serieak urtaro-eraginik gabe uzteko erabilitako modeloek COVID-19ak aztertutako aldagaietan duen eragina barne hartzen dute, Europar Batasuneko Estatistika Bulegoak (Eurostat) [Guidance on Time Series Treatment in the context of the COVID-19 crisis](#) ohar metodologikoan emandako gomendioei jarraituz.

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazioa biltzen lagundu duten establezimendu guztiei. Haiei esker, apirileko indizea laginaren **% 92,61eko** estaldurarekin kalkulatu da –horren informazioa maiatzean zehar jaso da–.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62